



ATEZ ATE HONDAKINAK BILTZEKO SISTEMARI BURUZKO KONTSULTA BATEN GAINEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA. Datuak Babesteko Euskal Bulegoan ondoren aipatzen ditugun gaiei buruz Bulegoak duen iritzia eskatzen duen idazki bat jaso dugu:

"Jakina denez, Gipuzkoa hondakinen bilketa eta tratamenduaren inguruko eztabaida batean murgilduta dago, eta alderdirik gatazkatsuena hondakinek biltzeko ATEZ-ATE (AAB)deritzon bilketa sistema da.

Bilketa sistema honen alderdi garrantzitsuenetako bat da etxebizitza bakoitzari toki jakin bat eta identifikatua esleitzen zaiola hondakinek uzteko. Gainera, zein hondakin utzi ere zehatuta dago, bai eta asteko zein egun eta ordutan utzi behar diren hondakinek kalean.

KONTSULTA:

Udal administrazioak eta eskualdekoak hondakinek egun, ordu eta toki jakin batean uztera BEHARTZEN dute, eta gainera toki identifikatua bada eta "ikuskatu" egin behar badute, DENA DELAKO ADMINISTRAZIO HORREK DU TOKI HORIETAN UZTEN DEN INFORMAZIOA KUDEATZEKO ETA BABESTEKO ARDURA? kontuan izanda administrazioek AGINDUTAKO BETEBEHARRA dela?

Hondakinen artean honakoak egon daitezke:

- 1) INFORMAZIO PERTSONALA, bankuko kontu laburpenak, gaixotasunen berri ematen duten botikak, gutun pertsonalak, fakturak, argazkiak, erosketak, aseguruak, epaiak eta abar.*
- 2) 2) INFORMAZIO PROFESIONALA. Gaur egun EGUNERO eramaten dugu lana etxera, eta nik balantzeak, nominak, estrategiak, aktak ...eramaten ditut, eta gerta daiteke edozein momentutan "aldentzea" eta "zabor ontzira" botatzea.*
- 3) POLITIKOA, zinegotzia izanez gero, eta abar, langile publikoek ikusteko eta ikuskatzeko moduan gera daitezke, eta hirugarren pertsonak fede txarrez ikusteko moduan gera daitezke hondakinok, herritarren edo administrazioaren nahitaezko baimenik gabe.*



Errealistak izanda, informazio pertsonal asko sortzen dugu, eta edonork jaki dezake adibidez gaueko 8etatik 10etara informazio hori zutabe batean aurkitu dezakeela zintzilikatuta.

...

Horregatik, eskatu nahi dizuet DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN iritzia emateko, uste baitut administrazioak behartzen bagaitu informazioa toki batean uztera, administrazioak berak duela EDUKIONTZI PERTSONALIZATU HORIETAN UTZITAKO INFORMAZIO GUZTIAREN SEGURTASUNA ZAINTEKO ETA NOLA ERABILTZEN DEN ZAINTEKO ARDURA.

BIGARRENA. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak xedatzen duenez, erakunde honen eginkizuna da honako hau:

"n) Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultak argitu nahi duena da ea atez ate hondakinak batzeko sistemak datu pertsonalak babesteko eskubidea urratzen duen.

Bide publikoan informazio pertsonala agertu izanaren ondorioz salaketa bat baino gehiago aurkeztu dituzte datuak babesteko kontrol agintaritzetan. Eta salaketok maiz oihartzun handia izan dute, batez ere informazioaren izaeragatik.

Bide publikoan informazio pertsonala agertu izan denean, kontrol agintaritzek izapidetutako prozedurek elementu bat komun bat izan dute: DBLOren 9. artikuluan jasotako arau-haustea egin izana fitxategiaren arduradunari leporatu zaiola .

9. artikulua datuen segurtasunari buruzkoa da, zera xedatzen du:

"1.- Fitxategiaren kontrolatzaileak, eta, hala denean, tratamenduaren arduradunak, izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatzeko eta baimenik gabe datu horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo atzitzea saihesteko beharrezko neurri teknikoak eta antolaketakoak hartuko ditu, teknologia-egoera, biltegiaritutako datuen izaera eta datu horiek dituzten arriskuak kontuan



hartuta; arrisku horiek izan daitezke gizakiaren ekintzaren zein inguru fisiko edo naturalaren ondorio.

2 Datu pertsonalak ez dira erregistratuko datuen osotasunari zein segurtasunari buruz eta tratamendu-zentro, lokal, ekipo, sistema eta programei buruz erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten fitxategietan.

3.- Erregelamendu bidez ezarriko dira lege honen 7. artikulua aipatu datuen tratamenduan parte hartzen duten fitxategiek eta pertsonak bete beharreko betekizunak eta baldintzak."

Esan bezala, zoritxarrez, bide publikoan informazio pertsonala agertu izanaren ondorioz, hainbat zehapen prozedura edo arau-hauste deklarazio egon dira, segurtasun neurriak urratu izana argi utzi dutenak, eta, zenbaitetan, informazio sentsiblea gainera, administrazio publikoen eta entitate pribatuen erantzukizunpekoa. Kasu guztietan araua hautsi izana fitxategiaren arduradunari leporatu zaio.

Kontsulta honetan aztertu behar dena, ordea, ez da gure ustez fitxategi publikoetako datu tratamendu bat, toki administrazioak egiten duen hondakinen bilketa eta tratamendu bat baizik, eta tratamendua Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2 l) artikulua esleitzen dion udal eskumen bat gauzatzeko da. Hona artikulua dioena:

"2. Udalerrak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu:

1. Ur-hornidura eta herriko argiteria; kale-bideak garbitzeko zerbitzua, hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua, estolderia-zerbitzua eta hondakin-urak tratatzeko zerbitzua."

Beraz, hori horrela, gogorarazi behar dugu zer den tratamendua. Hona DBLOren 3.c) artikulua definizioa:

"Modu automatizatuan edo ez automatizatuan egiten diren operazio edo prozedura teknikoak dira, eta datuak jaso, grabatu, gorde, landu, aldatu, blokeatu eta indargabetzea ahalbideratzen dute, bai eta komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik etorritako datuak lagatzea ere".

Datu pertsonalen tratamenduak egiteko, DBLOn ezarritako printzipioak eta bermeak bete behar ditu tratamenduaren arduradunak, hau da, fitxategia sortu, datu bilketa egiten duenean informazioa eman, datuen titularraren adostasuna eskatu izaera orokorrarekin, segurtasun neurriak hartu, eta abar.

Baina ezin zaio horiek betetzeko agindu udalari, hondakinak kudeatzeko ardura badu ere; hain zuzen ere, udalaren borondatek at dagoelako jakitea ea hondakinetan datu pertsonalak dauden ala ez, ez baitaki berak kudeatu beharreko hondakinen artean datu pertsonalak ager daitezkeen ala ez. Gainera, datu horiek ez dira inongo fitxategitan jasoko eta helburu bakarra dago, ezen suntsitu edo birziklatu egingo baitituzte, ez beste ezer.



Tratamendurik ez dagoela argiago uzteko, datu babesaren arloko araudiak ezartzen dituen hiru segurtasun neurriak ekarri ahal ditugu hona: oinarrizko maila, bitartekoa eta goi-mailakoa; eta fitxategi bakoitzari maila bat ala bestea esleitu behar zaio, bertan jasota dauden datuen arabera. Adibidez, osasun datuek eta ideologia datuek beti goi-mailako segurtasuna behar dute; arau-hauste administratiboei maila ertaina ezartzen zaie, eta datu identifikatiboei oinarrizkoa. Gure kasuan ezinezkoa da segurtasun mailarik esleitzea, ezin baita jakin hondakinak uzteko tokian utzitako hondakinen artean datu pertsonalik egongo den, eta halakorik egonda ere, zein motatakoak izan daitezkeen.

Esandako guztia kontuan hartuz gero, badirudi datuak babesteko oinarrizko eskubidearen funtsezko kontzeptuak —fitxategia eta datu tratamendua— ez direla baliagarriak aztertzen ari garen kasuan.

Beraz, esandakoa berretsi beharrean gaude, hau da, kontsultaren muina ez dela datu pertsonalen tratamendu bat, udal eskumen bat baliatzea baizik; hain zuzen ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak udalei hondakinak bildu eta tratatzeko esleitzen dien eskumena gauzatzea baita hemen kontua.

II

Edozelan ere, aurreko ondorioa azpimarratu beharrekoa bada ere, badago kontuan hartzeko beste alde bat: udalek gogoan izan behar dutela hondakinen artean herritarren informazio pertsonala edo intimoa egon daitekeela.

Zentzu horretan kontsulta-egilea zuzen dabil esaten duenean hondakinen artean edozein motatako datuak egon daitezkeela: bankukoak, osasunekoak, lanekoak eta abar. Eta, beraz, hondakinak behar bezala kudeatu ezean, pertsonen pribatutasuna arriskuan egon daitekeela, bai eta pertsonen profilak sortzeko modua egon daitekeela ere.

Ezin da ahaztu hondakinak udal ordenantzek agindutako moduan utzi behar direla, eta, ondorioz, administrazioak hondakinen gaineko boterea duela, nahiz eta boterea administrazioari dagokion zerbitzu publikoko jarduerak burutzeko baino ez izan (balorazioa egitea, hautaketa, birziklatzea eta deuseztatzea), hala xedatzen baitu hondakinen kudeaketari ezartzen zaion lege erregimenak, eta batez ere honako arauak jasotzen dute: Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren erregimena 28ko 22/2011 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea.

22/2011 Legearen 12.5 a) artikulua agintzen die toki erakundeei, nahitaezko zerbitzuen artean, etxeetan, komertzioetan eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzua ere eman behar dutela, toki erakunde bakoitzeko ordenantzek esaten dutenaren arabera. Tratatu beharreko etxeko hondakinak nola utzi behar diren ere toki erakunde bakoitzeko ordenantzetan zehaztu beharko da (22/2011 Legearen 17.2 artikulua).



Horregatik, eta hondakinen artean herritarren bizitza pribatua agerian utz dezaketen arrastoak egon daitezkeenez, DBEBk uste du toki erakundeek nahitaez eman behar duten zerbitzu hau arautzen duten ordenantzak kontuan hartu beharko luketela esandakoa.

Horrekin lotuta dago Auzitegi Gorenaren 2012ko azaroaren 7ko Epaiak esandakoa. Epaiak Madrileko Garbitasuneko Udal Ordenantzaren legezkotasunari buruzkoa da, instantziako epaiak kasatzen du eta zabor poltsak eta gainontzeko hondakin edukiontziak ikuskatzeko baimena ematen duen ordenantzaren manua legezkota dela adierazten du. Auzitegi Gorenak epai honetan adierazten du udal ordenantzetan jasota dagoen ikuskatze eginkizunak ez duela pertsonen pribatutasuna urratzen, eta hainbat arrazoi ematen ditu horretarako: esku hartzen dutenak agintarien agindupeko agenteak direla dioela ordenantzak, ikuskapena egiteko tokia bera, eta hondakinak hondakin motaren arabera utzi behar direla eta, beraz, hondakinen gaikako bereizketa egin behar dela.

Auzitegi Gorenak arrazoi horiek hartu baditu kontuan agintarien agindupeko agenteak diren funtzionarioen ikuskatzaile eginkizuna legezkota dela ebazteko, horrek esan nahi du hondakinak kudeatzeko sistemak garrantzi handia duela pertsonen pribatutasuna bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak gomendatzen du, hondakinak uzten dituzten pertsonak identifikatzen dituzten edo identifikagarri egiten dituzten hondakinak kudeatzeko sistemak ezartzen dituzten toki erakundeek, datu pertsonalak dituzten hondakinak tratatzeko modu apropos bat jaso beharko dutela ordenantzetan, hondakinok biltzen direnetik suntsitzen diren arte; eta hori egiteko legeak agintzen dituen tresnak edo bitartekoak erabili beharko dituztela. Guzti horrek helburu bakarra du: hondakinen kudeaketak ahalik eta kalterik txikiena egitea pertsonen pribatutasunari.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 18an